Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Maria Jesus Lopez de Bergara Berriozabal

Legutio, Araba (1940)



Aurkibidea

Biografia



Sandurdi auzoko Sandurdi baserrian jaio zen. Garai batean, leku bertan San Jurgi baseliza egon zen. Aita etxekoa eta ama auzo bereko beste baserri batekoa zen. Lau anai-arrebatatik gazteena izan zen. Legutioko eskola publikoan ikasi zuen; zigor gogorrak jasan izan behar zituen edozein gauzagatik. 13 urterekin eskola bukatu eta etxean geratu zen, neguan joskintza ikasten zuen bitartean. Elosuko Ildefonso Fernandez de Larrinoarekin ezkondu zen Basaurira, eta ume bat izan zuten. Dastatze-denda bat ireki zuen Basaurin. Ezkondu eta 13 urte geroago alargun gelditu zen, eta bere semearekin Legutioko jaiotetxera itzuli zen; harrezkero Legution bizi da.

Zintak

LEG-008

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Data**: 2010-04-19
- **Iraupena**: 83 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea

LEG-063

- **Proiektua**: Arabako euskara
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aranburu, Xabier
- **Data**: 2010-09-01
- **Iraupena**: 27 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k)**: García Uriarte, Imanol - Carrera Garmendia, Ignacio
- **Emalea**: García Uriarte, Imanol

Pasarteak

1. "Billerle" deitu izan diote herriari

- **Erref**: LEG-008/002
- **Iraupena**: 0:00:59. **Hasi**: 00:00:48. **Bukatu**: 00:01:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra

Laburpena:
Legutiori "Billerle" esan diote beti; izan ere, XVI. mendean-edo, Legutio izena kendu eta "Villareal" izena jarri zioten.

2. Bekokian gurutzea marraztu zigor modura

- **Erref**: LEG-008/005
- **Iraupena**: 0:02:27. **Hasi**: 00:03:03. **Bukatu**: 00:05:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak

Laburpena:
Txiki-txikia zela joan zen eskola. Askotan negarrez bueltatzen zen etxera. Izan ere, zigor modura lapitz gorri batekaz bekokian gurutze bat marrazten zien eta bazkalorduen horrela joaten ziren etxera. Jo ez zuten jotzen, baina beste askotan armairu ilun batean sartzen zituzten ume txikienak. Maria Jesusentzat zigorrik txarrena gurutzearena zen.

3. San Jurgiko batzarrak eta eliza

- **Erref**: LEG-008/007
- **Iraupena**: 0:03:23. **Hasi**: 00:05:53. **Bukatu**: 00:09:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Bere jaiotetxea lehen eliza izandakoa zen, San Jurgi. Urtean behin egiten zen bertan herri guztiko batzarra eta meza. Batzar horretan parte hartzen zuten pertsonek ezin zuten aurrekari txarrik izan. Gaur egun ez dago eliza zaharraren arrastorik, gurutze txiki bat baino ez dago. Santua Bartzelonara-edo eraman zutela uste du Maria Jesusek.

4. San Jurgi santua

- **Erref**: LEG-008/008
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 00:09:16. **Bukatu**: 00:10:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Bere jaiotetxea lehenago eliza izandakoa zen. Gaur egun ez dago elizaren arrastorik, baina bertan zuten santua zelakoa zen azaltzen du. Zaldi gainean zihoan gerlari bat bailitzan, armaduraz jantzitako santua zen.

5. Colico miserere izurritea herrian

- **Erref**: LEG-008/010
- **Iraupena**: 0:03:14. **Hasi**: 00:12:09. **Bukatu**: 00:15:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:
Lau neba-arreba izan ziren, bera alaba bakarra. Baina gurasoek beste hiru ume izan zituzten, baina hil egin ziren. Herrian colico miserere izeneko izurrite bat egon zen eta hainbat pertsona hil ziren, tartean beraien ahizpa bat. Beste neba biak laringe-difteriak (garrotillo) jota.

6. "Sección femenina"koak eskolan

- **Erref**: LEG-008/012
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:15:45. **Bukatu**: 00:17:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak

Laburpena:
12-13 urte arte joan zen eskolara. Astean behin Gasteiztik falanegisten aldeko "Sección femenina"koak joaten zitzaizkien eskolara. Ez ziren batere gustora egoten, baina kasu egin behar.

7. Maistra jatorra zen; maisuak makila beti prest

- **Erref**: LEG-008/014
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:17:46. **Bukatu**: 00:19:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak

Laburpena:
Sekula ez zuten hitz bat bera ere egin euskaraz ez eskolan ezta dotrinean ere. Bere neba batek, ostera, zaharragoa izan arren, euskaraz egin zuen lehen jaunartzea. Nesken maistra ez zen hain gaiztoa, baina mutilen maisua Franco zalea omen zen eta makilakada galantak jasotzen zituzten.

8. Solo eta sail handiak zeuden herrian, orain urpean

- **Erref**: LEG-008/015
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:19:25. **Bukatu**: 00:21:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:
Beraien etxean beti izan dituzte behiak eta ardiak. Soloak lantzeko beti zituzten bi behi pare, buztartu ahal izateko. Sekula ez zuten lan faltarik. Urtegi azpian omen daude herriko solorik eta sailik onenak. Bertakoentzat heriotza bezalakoa izan zen urtegia egitea.

9. Esneduna baserrietatik esne bila

- **Erref**: LEG-008/017
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:21:33. **Bukatu**: 00:24:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:
Otxandiotik zetorren esneduna baserriz baserri pasatzen zen esnearen bila. Gasteizen saldu ostean, bueltan kantinak ekartzen zizkien. Otxandioko esnedun horrek nahi izanez gero Gasteiztik enkarguak ekartzen zizkien. Legution ere bazegoen beste esnedun bat. Ardiaren esnearekin gaztak egin eta saldu egiten zituzten.

10. Durangora gaztaiak saltzera

- **Erref**: LEG-008/018
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 00:24:23. **Bukatu**: 00:26:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:
Ardiaren esnearekin gaztak egin eta saldu egiten zituzten. Maria Jesus neskatila zela, Durangoko plazara joaten zen gaztaiok saltzen. Aitak astoz autobusera laguntzen zion eta autobusez joaten zen Durangoraino. Gerora, etxean bertan ere saltzen zituzten. Giro ona egoten zen Durangoko plazan, salmentarako ona zen; Gasteizen baino gehiago estimatzen zuten jenero ona.

11. Gazta "pica pajaro en ventana"

- **Erref**: LEG-008/020
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:27:18. **Bukatu**: 00:28:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Durangoko plazara gaztak saltzen joaten zen emakume batek ez zuen esan nahi izaten arratoiak jaten zutenik gazta eta "pica pajaro en ventana" esaten zuen.

12. Baserriko jeneroa trukean

- **Erref**: LEG-008/022
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:29:24. **Bukatu**: 00:30:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:
Bere izekok-eta "La fonda del crucero" zuten eta ezkontzetako banketeak ospatzen ziren bertan. Beraiekin baserriko jeneroa trukatzen zuten eta ez zuten ezeren faltarik izan etxean. Artileak ere asko balio zuen sasoi hartan.

13. Elur sasoian artaldearekin kanpora

- **Erref**: LEG-008/024
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:31:39. **Bukatu**: 00:33:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
150 buruko artaldea zuten, herrian ohikoa zen hori. Udan mendian egoten ziren eta udaberrian soloetan, baina elurra eginez gero kanpora joaten ziren: Iurretan (Bizkaia), Betolazan (Araba)... Bildotsak negu gorrian jaiotzen ziren, otsaila inguruan.

14. Txerri- eta ardi-buzkentzak

- **Erref**: LEG-008/025
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:33:45. **Bukatu**: 00:34:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:
Ardi zaharrak udazkenean kendu eta bildotsak hazten zituzten. Urtean bi txerri eta bi ardi hiltzen zituzten eta buzkentzak egiten zituzten. Bere amak oso gozoak egiten ei zituen.

15. Elurra dela eta jaiak irailera aurreratu

- **Erref**: LEG-008/028
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:35:30. **Bukatu**: 00:37:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:
Legution iraileko kofradiak ospatzen dituzte, jatorria Saindurdin dute. Berez, bertakoa jaia San Blas eguna dira, otsailaren 3a. Baina aldatu egin zuten eguna; izan ere, gonbidatu asko izaten zituzten etxean eta negu hotzean elurra eginez gero, hainbat egunez etxean gelditu behar izaten zuten. Hori dela-eta, jaiak irailera pasatzea erabaki zen, Ama Birjinaren hurrengo asteburuan. Horretaz aparte, auzo bakoitzak bere jaiak ditu.

16. "Tres navios en el mar" eta arrosarioa

- **Erref**: LEG-008/031
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:43:13. **Bukatu**: 00:43:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Umetan ez zuten ezeren beharrik ondo pasatzeko. "Tres navios en el mar"era jolasten ziren eliza ostean. Arratsaldero joan behar izaten zuten arrosariora

17. Euskaraz egiteagatik arazoak

- **Erref**: LEG-008/035
- **Iraupena**: 0:03:03. **Hasi**: 00:47:21. **Bukatu**: 00:50:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Lanbideak » Polizia
- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:
Behin amak lixiba erostera bidali zuen "Burgalesa" deituriko dendara. Guardia zibilen andreak egoten ziren berriketan eta behin beragatik txarto esaka aritu ziren euskaldunen alaba zelako. Etxera joan eta amari esan zion ez egiteko gehiago euskaraz, baina amak esan zion berak agintzen zuela etxean eta etxeko hizkuntza euskara zela. Eskolan batez ere mutilek izaten zituzten arazoak euskaraz aritzeagatik. Abadea ere karlista zen eta ez zuen onartzen euskaraz egitea. Herri askotan nahi zutena lortu arren, ez dutela lortuko uste du Maria Jesusek.

18. Ikurrina lasto artean ezkutatuta

- **Erref**: LEG-008/038

- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:51:43. **Bukatu**: 00:52:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:
Ikurrina lehen aldiz ikusi zuenerako nagusia zen jada. Bere osaba batek zuen gordeta, txakur handi batek zaindutako lasto artean zuen ezkutatuta.

19. Trenbidea egiteko asmoa

- **Erref**: LEG-008/042
- **Iraupena**: 0:02:14. **Hasi**: 00:58:00. **Bukatu**: 01:00:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:
Golf-zelaia dagoen tokitik Dimara trenbidea egiteko asmoa egon zen antzina, bere amari entzunda daki hori. Lursail horren jabea don Pablo zen, frantsesa, eta bere ekimenez hasi ziren egiten. Badaude trenbide horren arrasto batzuk lanok hasi baitzituzten, baina ez zioten jarraipenik eman. Don Pabloren emaztea eta neskameak domekaro joaten ziren mezara dotore-dotore jantzita.

20. Don Pablo, denek erreberentzia egitetik miseriara

- **Erref**: LEG-008/043
- **Iraupena**: 0:04:02. **Hasi**: 01:00:14. **Bukatu**: 01:04:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
Don Pablo herrian bizi zen frantses aberats bat zen. Trenbidea egiteko lanak hasi eta elizari organoa oparitu zion. Baina apurka-apurka gainbeheran joan zen: emaztea eta neskameak joan egin ziren eta bakarrik eta egoera txarrean geratu zen herrian. Jendeak emandakotik bizi zen eta komunista zenez hiltzerakoan ez zuten kanposantuan lurperatu. Maria Jesusen ama neskatila gaztea zenekoa kontua da.

21. San Rokeosteko ipuina

- **Erref**: LEG-008/049
- **Iraupena**: 0:05:35. **Hasi**: 01:10:31. **Bukatu**: 01:16:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:
San Rokeoste ("Zerkoste") auzoan, errota bat eta etxe bat zeuden (urtegia egindakoan desagertuta). Errota horretako andra-gizonek lau ume zituzten eta beste etxeko emakumeak aker bat zuen eta zaintiretuak egiten zituen. Sasimediku hori Petronila zen. Bi familia horiei buruzko istorioa edo ipuina kontatzen du , bere amamari entzundakoa da.

22. Gari jotzea

- **Erref**: LEG-008/051
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 01:17:34. **Bukatu**: 01:18:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:
Gari jotzea beti ezagutu da makinarekin egiten. Lehengo behorrak pasatzen ziren eta gero gari jotzeko makina.

23. Jaiotetxea, garai batean, ermita izandakoa

- **Erref**: LEG-063/002
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:00:56. **Bukatu**: 00:02:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Maria Jesus jaio zen baserria, garai batean, Sainjurji ermita zen. Ermita hartan elkartzen omen ziren irailean, duela 5-6 mende.

Transkripzioa
- Ta ni jaidxota nagoen baserria zan elize izendakue... Bueno, eliza ez, ermita bat.
- A, bai?
- Sainjurji.
- Baserria?
- Sainjurji, zan, ezeren baiño lehen, baserria izen baiño lehe.n
- Ermita izan zen...
- Oin dela ba... bostehun urte edo saspirahun edo halakoren bat, zan ermita bat. Neuk ikusta dauket ganbaran santua, Sainjurji... gero ya kendu aubien.
- Zaharra izango zen, zaharra...
- Bai, kendu aubien hori ya, eruango eurien Bartzelonara edo halakoren bat, baiña hori lelengo izenekue zan... armita bat, ermita bat, ta han baten... osea, batuten ziren hemeko inguru guztikuak, Legutio inguru guztikuak, udaletxe guztikuak setienbrien, ta zan, eiten eubien ba, atara “Nobles hida(l)gos de la Cofradía de Sanjurji”...
- Eta akordatzen zara zu, e?
- Ez, entzunda, e!
- Entzunda...
- Oin dala bostehun edo seirehun urte hori!
- Bostehun, seirehun...

- Bai, bai, hori nik entzunda dauket ba nire aititeri ta amamari, aurori be esanda, esandakua; ta gero zahar-zaharra, galdu ziren horreik ohiturok eta horreik gauzok eta, ba ein zan baserria... Ta gero, jun ziren batzuk bizitera han baserrian, gure, nire gurasoak baiño lehenago, ta gero ya nire gurasoak.

24. Gerraostean, euskara oso zigortuta Legution

- **Erref**: LEG-063/004
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 00:03:12. **Bukatu**: 00:04:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Etxean, dena euskaraz egiten zuten. Baina, gerra ostean, Legution oso zigortuta zegoen euskara: bazen euskaraz hitz egiteagatik hil zutenik ere.

Transkripzioa
- Bale, eta beste pregunta bat, hor baserrian, bueno, familian eta, bakarrik behar ziren eta, dana euskaraz hitz egiten zenuten?
- Bai, orduan bai!
- Dana, dana.
- Orduen dana, dena euskeraz.
- Etxean bai, eta gero herriko jentiagaz eta?
- Gero izen zan, ze ni jaiota nau berrogeian, ez? Gerra ostean, ta... Ba hemen eon zan oso kastigauta, herria, ezin zan euskerarik egin, euskera hitz egitiegeaiti ba kartzelara, ta hil ta dana ein daubiez hemen herrian, e!
- Hilda ere bai?
- Bai, bai, hemen Elosun...
- Elosun...
- Hil be bai! Eta nire aitite udaletxera eraman, ta ez ekidxen erderaz! Ikes eban, bai! “Ya lo creo” ikes ebana! Ta horregaiti euskeraz egiteagaiti, asike ezin genuen kalien euskerarik egin.
- Eta hori gerra garaian edo gerra ostean ere bai?
- Gerra ostian, gerra ostian.

25. Euskalduna izateagatik, burlak jaso

- **Erref**: LEG-063/005
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 00:04:06. **Bukatu**: 00:06:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:
Umetan euskalduna izateagatik bizitakoa gogoan du. Orduan, ondo ikasi zuen etxean euskaraz eta kalean erdaraz egin behar zuela.

Transkripzioa
- Gerra ostean…
- Ni, ni neskatxue nintzela, nik kontatuko dizut niri gertatutako bat, gauza bat hemen herrian, ta geroau gehidxau gogoratzen naz, ze gauzie! Gaztia izen nazen arte, ez naz gogoratu ezen horrekaz, baiña orain esaten dot, bueno, baiña zelako gauzak pasetan ziren! Ba ni, neskatxua, ba ez dakit zenbat urte euko neban, zazpi-zortzi urte edo, ta ikastolara, ez? Baserriti, hemen, baserria, herriti apur bat kanpora, ta amak esan usten: “ume, ekarriko ostazu lejia botilla bat burgalesen dendati”, hemen plazan, aoen denda bat, ta esaten utsien “el burgalés”, han auzenak, ez? Ta klaro, zelan hor, ikastola onduan auen, ba ipini eusten paiñolotxo baten erriela edo ez dakit zer, da, nik urten nebanien eskolatik hartu… jun nintzen hartzen lejia-botilla, ta esan notsen: “lejia-botilla bat”. Bueno, ba, emun usten, ta han auzen… Ze kuartela orduen zegoen herrian, herrian, hemen, herri erdian…
- Guardia Zibillana?
- Guarda Zibillena. Ta klaro, horren emazteak ba, dendara, hara barriketan, haik ez aukien lanik nire ama modun jorran, ta zolora, ta horti ta hemeti, ba han eoten ziren hiru edo lau, gogoratzen naz auzela hiru edo lau emakume han, ta esan eutsien batek esaten dio dendakueri: ““Oye, ¿quién es esta… esta chiquilla?, y dice: “Ésta es de unos vascos de allá, de allá fuera, de más arriba del pueblo”, y dice: “¿Vascos? ¡Fíjate! ¡Pues son más tontos!, ¿Éstos cómo pueden ser vascos, cómo pueden hablar…?””. Kritiketan euskalduneiri auzen auren artien! Juan nitzenien etxera, lelengoko lana ein nebana esan nutsen: “Ama, niri ez ein euskera, e! Niri ez, ze burgalesenien esan daubie euskaldunak garela tontuak!”.
- Hori zeuk esan zenion amari…
- Nauk amari, amak begitu nusten goiti behera ta esan nusten: “zer esan dozu? Aurok agintzen daubie kalien, ta etxien agintzen dut nik! Ta kalean ingo dozu erderaz, ta etxien ingo dogu euskeraz!”. Ta holan mantendu dugu euskera!
- Kalian erderaz eta etxian euskeraz...
- Kalean erderaz ta etxean euskeraz!

26. Maisuaren aurrean, euskaraz egin aurretik, ondo pentsatu behar

- **Erref**: LEG-063/006
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:06:30. **Bukatu**: 00:07:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Lehen, eskolan, bazen maisu bat oso ondo irakasten zuena; baina maisu horrek zigor gogorrak jartzen zituen ikasleek euskaraz egiten bazuten.

Transkripzioa
- Bai, ta orduen maixuak be bai, e! Ikastolako maixua…
- Bai, preguntatu behar neutsun, eskolan eta, eskolan zelakoak ziren maestroak?
- Bueno, maixuak… zegoen hemen maisu bat, don Federico euken izena, oso maisu ona, e! Ona irakusteko. Terriblie zan. Nere nebak eta, bueno,

ikesten aubien pilla bat, baiña pilla bat, e! Haik zekiten, ikastolan ikasita, baiña zan espaiñola “a tope”! Lagun artien eiten baubien, ba, nire anaiak ohitura, lagunakin, ba, gura izan barik euskera... Zenbat kolpe hartu daubie makilliegaz, hala be! Biri... nere neba baten lehengusuk eta bidxek eiten eubien, gurasoen barik urten eiten eutsien ba, hori zan guk gaukena! Ta plisti-plasta! Baiña, baiña makilliegaz buruen e! Tontorrak atara arte!
- Hori maestroak?
- Hori maistruak, orduen, orduen denporan, e! Iten zan, orduen ziren oso denpora gogorrak nire herrian!
- Zeu ere jasotakoa zea, makillak eta...?
- Ni nau ez, ya ez, ni zeren apur bat gaztetxuague nazen...
- Zaharrei igual ta...

27. 'Sección Femenina' eskolan

- **Erref**: LEG-063/007
- **Iraupena**: 0:00:51. **Hasi**: 00:07:47. **Bukatu**: 00:08:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak

Laburpena:
Maria Jesusen eskola-garaian, Sección Femeninako batzuk etortzen ziren.

Transkripzioa
- Ya nire ikastolan ta, ez da egon halakorik. Bai euki du apur bat, ba etorten ziren orduen, ni gogoraten naz “de la sección femenina” etorten ziren.
- Bai, entzunda daukat, gurasoei entzunda nakan, bai...
- Ikastolara, ikastolara bi neska, ez dakit ze egun... astien behin etorten ziren, ez dakit zen asteartea edo eguenean edo noz ez dakit, baiña badakit, gogoratzen naz etorten zirela. Ta haik ba berba iten uskuen “de la unidad de España”, ta “de la falange, José Antonio Primo de Rivera”. Ta horreik kontuok eukiten uskuen. Eta klaro, guk, horreik gauzok guretako ba ez ziren! Guk horreik gauzak ez gaukezen barruan, gaukezen beste gauza batzuk. Ta hartu gebazen kastiguak eta hori, bai? Bueno, zigorrak baiña bueno, oso-oso sinpleak, sinpleak; oin ez naz gogoraten...

28. "La cruz del diablo" zigorra

- **Erref**: LEG-063/008
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:08:38. **Bukatu**: 00:10:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak

Laburpena:
Maria Jesusek jasotako zigorrak gogoan ditu: "La cruz del diablo".

Transkripzioa
- Agian zuek ezagutu zenuten eraztunarena edo? Anilloarena eta hori edo?
- Ez.

- Ez.
- Ni gogora… zigortuta?
- Bai.
- Eskola… lelengo, hor eskolara pasatu baiño lehen, lelengo eskola “de párvulos” esaten zana, ez? Ni gogoraten naz horregaz, “con la cruz del diablo”…
- Zer da hori?
- Oin esango dizut zer zan… Hori zan, hori zan paliza bat baiño txarraua! Bueno, eiten bazeban zerozer ikastolan, ez dakit zer ingo zeban, ze orduen… zazpi urte arte edo seira arte, urte arte eoten giñen hor, ta gero pasetan gintzen beste ikastolara; ta hor ifinten euskun portaten bazintzen gaizki, holako kurtze gorri bat, “la cruz del diablo”, holan, e!
- Marraztuta?
- Marraztuta, eguerdian jueteko etxera, ze eguerdian, karo, jun bihar zeban etxera bazkaiten, ta ezin zeban kendu! Haregaz bueltau biher ostera ikastolara! Ta aitek eta amak eta etxien ikusi! Ta klaro! Aitek eta amak ostera hasarre!
- Hori zer zan, euskaraz berba egiteagatik edo?
- Hori daukozunien zerozer egin dozu!
- Eta euskaraz berba egiteagatik edo…?
- Ta ostera bueltau biher! Aitek eta amak esan biherrien kendu izu horti, ta “ya está”! gaur izengo litzeke horrela, baiño orduan ya-ya! Aitak eta amak be: “Kurtzi horregaz jun bihar dozu berriz!”, ta ostera! Ha zan, ha zan zigorra, baiña zan, esango zer dan, ze karo, bidian eta jentiek ikusi eta…
- Zigor hori jartzen eben euskara hitz egiteagatik, euskaraz egiteagatik?
- Ez, hori, euskera… erozein gauzagaiti
- Edozein gauzagatik…
- Euskeragaiti ez, “simplemente” ez, zera, gallegie zan hori maestri hori, ta ez zan hain zera… Ez zan horren… Kontrakua ez zan, erdelduna zan, baiña, baiña ez euskaldunen kontrakua. Baiña zigorrak ifinten bazen min iteko modukuek, zurrarik emun barik, e?

29. Legution, gerrak euskarari egindako erasoa

- **Erref**: LEG-063/009
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:10:30. **Bukatu**: 00:13:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:
Umetan, kalean ez zuten egiten euskaraz, auzoan bakarrik. Apaizak erdaraz ematen zuen meza, nahiz eta berak euskaraz jakin. Inguruko herrietan baziren euskaldunak, baina jendeak euskaraz egiteko beldurra zeukan. Gerra aurretik, euskara asko egiten zen Legution.

Transkripzioa
- Bale, eta gero adibidez, eskolatik urten eta gero, umien artian eta, kalian eta, euskaraz hitz egiten zenduten?
- Kalian ez.
- Kalean ez, umeen artean ere ez.
- Guk, auzokuek edo han ingurukuek eta, bai eiten geban, baiña…
- “O sea”, auzoan eta, bai.

- Herrian ez!
- Herrian ez.
- Herrian hitzik be ez!
- Kalian ez.
- Elizan be ez, elizan be nik ez dot ikasi errezetan, ta euskeraz... ointxura... ointxura arte!
- Apaiza ez zan euskalduna?
- Euskalduna zan, zan Oluletakue, baiña erderaz dena!
- Dena erdaraz?
- Dena erderaz!
- Oletakoa izanda, e?
- Orduan erderaz... holako anbientia zegoen hemen... Bai, bai.
- Bale. Eta orduan ba, hona... “prácticamente” bakarrik erabiltzen zenuen baserrian eta auzoan eta? Auzokuekin eta, euskera?
- Bai, bai, bakarrik...
- Ya kalian eta, Legution ez.
- Ez, erderaz! Erderaz...
- Bale, eta gero, ingurukoek, zu gaztia ziñanian edo, ezagutu zenun inguruko herrietan euskaldun gehixau? Otxandio eta Aramaixon aparte, igual Elosun edo...
- Bai, Elosun bai, ta Urrunagan be bai!
- Urrunagan ere bai...
- Ta Urbiñen be ba, bazegoen bateren bat, baiña gutxioau!
- Urbinan ere bai.
- Urbiñan ere bai, baiña ez, ordun zan hain... Hain gogorra a, jaso dira hemen... Jentiek nik ikusten dot daukela bildurra hitz egiteairi...
- Beldurra baina badaude han batzuk edo.
- Bai, bai, bai!
- Eta Zigoitia aldean? Zigoitian?
- Ba nik ez dakit Zigoitia aldian, baiña nik uste dot eongo zirela...
- Muruan eta...
- Eongo zirela, baiña nik hor ezin dot esan...
- Ez dakizu zu gaztea...
- Elosun ta bai, bakit!
- Elosun bai.
- Zelan... egiten daubien, hitz egin daubien han nigaz asko ta, bueno, gero ya, Franco hildakuan ta, ba, ba “bien”! ostera.
- Ya errekuperau zan apurtxo bat, ba...
- Lehengua errekuperau ta... Baiña eiten geban, hitz egiten geban beti holan, bildurrez moduen.
- Ya, toki guztietan antzera!
- Gordeta! Bai...
- Bale, eta, bai! Apaizakin ordun esan dezu apaiza euskalduna zala, Oletakoa, baiño ez zun ezer egiten?
- Baiña ez.
- Kalean ere ez...
- Elizan da, elizan ta... Berak berba eiten eban, e!
- Bai?
- Berak bai, berak eiten eban berba ta nigaz be bai, ta nire gurasuakin ta dana, iten eban berba, baiña elizan ez auen iñungo, iñungo... ez meza, ez errosario, ez katekesis, ez ezebez, dana zan erderaz, e!
- Ya, erdaraz...
- Dana zan erderaz...
- Eta suposatzen da gerra aurretik kalian hemen euskaraz egingo zala, ez?
- Bai, bai, bai, bai, bai...
- Gerra aurretik, bai, ez? Legution, kalean bai.

- Nire neba jaunartzeko, hori, katezismoa dana euskeraz.
- A, euskaraz egin zuen? A, bai?
- Dana zan euskeraz.
- Hemen, Legution bertan?
- Hemen, Legution.
- “O sea”, gerra aurretik?
- Dana, dana, dana, dana euskeraz, dana euskeraz; ta, baiña, gero ya behin gerra-denporati aurrera…
- Moztu zen.
- Dena, dena, orduen ba jentie bildurtu!

30. Eskola bukatu osteko lanak

- **Erref**: LEG-063/010
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:13:20. **Bukatu**: 00:15:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:
12-13 urte zituen arte ibili zen eskolan; eta, orduan, josten ikastera joan zen Durangora eta Gasteiza. Gerora, amari laguntzen aritu zen etxean.

Transkripzioa
- Ondo. Gero aurrera pixka bat egiteko, ya, bueno, noiz arte egon ziñan eskolan? Zenbat urtera arte edo?
- Ba, hamahiru urte arte, hamabi-hamahiru urte arte, hamahiru urte, halakoren bat…
- Eta gero, beharrean, lanian edo…
- Ba, ez, orduen hamalau urtegaz eoten dire, hamahiru urtegaz gero ya amaiten zeban eskolakue, ta juaten zenitzen gero ikasten josten ta, bordatzen ta josten, ta egonda nago Durangon.
- A, Durangora?
- Durangon ta Gasteizen…
- Gasteizen ere bai…
- Bai, ta gero etxean laguntzen amari, ze klaro, etxean… Ba lau, lau neba, aita, beti kanpokoren bat, ama, ta solora ta jun bihar eban nere amak ere, ba orduen etxien be egoten ta lan asko.
- Lan asko egoten da, ez?
- Ta nau be juaten nintzen solora, ta askobarres, belar-denporetan, ta orduen garia be bai eoten zan hemen. Auen gari asko, hemen oin ura dagoena, tapauta… honeik behiyok, hor lelengo, hemeti etxeetati, hemen… hemeti berantza ezeten zan ereiñak, ortuak, ortuak eta ereiñak, ta gero ya dana ezeten zan garia, garia, ta hona bestaldera be bai. Bai, hemen garia ta bederra eoten zan udan, ta eoten zan lan asko, ta orduen etxeko guztiak egoten gintzen…
- “O sea que” eskola amaitu eta etxean beharrean eta lanean eta ortuan eta…
- Bai, etxian ta danien… Ta gero kanpora juan naz, juaten nitzenien, be etorten nitzenien etxera… Bai, lanea, lana etxian, ta ortuan… Ta danien, ze juaten nitzen neguan, e! Hemeti Durangora ta Gasteisera be bai neguan… udan etxean laguntzeko.

31. Legutioko jaiak

- **Erref**: LEG-063/011
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 00:15:02. **Bukatu**: 00:16:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:
Gaztetan, Legution zer jai izaten ziren aipatzen du. Gabonetan, abestiak euskaraz abesten zituzten.

Transkripzioa
- Bale. Eta akordatzen zara igual gaztetan edo txikitan herriko jaiak zeintzuk zian edo zer jai egoten zen edo?
- Bai…
- San Juanetan, adibidez, edo…
- San Juanetan sua!
- Sua egiten zen, bai…
- Orduen eiten ziren suak baserri guztietan…
- A, guztietan?
- Oin, oin eiten dira herri erdian, hemen inguruan eiten da su handi bat, eta “ya esta”! Baiña ni gogoratzen naz, ordun herrian be igual ingo, ingo ziren, baiña ni nere denporan, nere gurasuak eiten aubien beti larreneko inguruak eta dana garbi-garbi egin, da eiten aubien pilla bat, pilla bat, eta gero, harei pilluari ematen zan sua, ta han ibilten gitzen jolasten, San Juan su inguruan…
- Kantak egongo zian’e bai, ez? Euskeraz ta…?
- Kanta, horren ohitura… Asko ez dauket nik San Juan zera…
- Ez.
- Ez…
- Gabonetan igual gehiago edo?
- Gabonetan bai, Gabonetan beti abesten zan etxien apur bat, baiña…
- Eta hor, kantak eta, euskeraz izango zian gehienak, ez?
- Bai, bai, bai, guk iten gebana, abestiak eta, euskeraz.
- Eta bestela, herriko jaixak noiz dira hemen? Herriko jaixak bestela, noiz dira?
- Ba herriko patroia esaten daubiena da San Blas; San Blas, otsaillan hiruan, febreruen hiruan… Ta gero kofradidxak izaten dire, horregaiti lehen esan dizuten eliziegaiti, Sandurdiko ermita hori, “de los nobles hidalgos de Legutiano”, ta orduen izango zan Legutiano hau, e!
- Legutiano izango zen…
- Seguraski, edo Legutio!

32. Legutio, Legutiano, Billerle...

- **Erref**: LEG-063/012
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:16:33. **Bukatu**: 00:18:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:
Legutiok hainbat izen izan ditu: "Billerle", Legutio, Legutiano... Endrike Knörren aholkua jaso zuten; eta azkenean, izen ofiziala aukeratu zuten.

Transkripzioa
- Zeuek esaten dotsue Bilerle, ez? Bilerle esaten duzue?
- Gero, gero gu Billerle
- Bilerle?
- Bai.
- Bilerle, Villarreal...
- Baiña Billerle jarri aubien, gero jarri aubien... “Sancho el Sabiok”, edo ez dakit nor izen zan hemeti pasau zana, ta esan eban “que hay que”, emon bihar yakola... pribilegio bat, billa iteko, ta orduen jarri utsien “Villarreal de Álava”
- “O sea”, garai hartan zan Legutiano...
- Baiño lehenau izan zan Legutio edo Legutiano! Nik ez dakit, hor duda dauket nik zan Legutio edo Legutiano, ze udaletxean ya, pentsatu genuen, gebanien ifinteko berriz Legutiano, edo Legutio, ba etor zan... orrek, “de los” Knörr.
- Knörr, bai.
- Deitzen san Enrike edo...
- Enrike, bai, hil zana, bai...
- Hil zan, ez? Hori etor zan udaletxera, gogoratzen naz, ta esplikau uskun zelan, zelan ifinteko aldatzeko izena, ta berak pensetan bala, ba hobeto zela Legutiano, baiña gauk pentsetako edo Legutio edo Legutiano, ta ez dakit zergaiti danon arte erabaki geban ifinteko Legutiano... Ta, ta horrela, pensetan dot izengo zala... Berak pensa... Fijo ez ekien, e! Ze lehengo, lehengo kontua(k) ya galduta usen danak hemen herrian, e! Zelan udaletxea be erre in zan itxuria noizbaiten, ta hemen ez da egon lehengo konturik, herri honetan dau historia gutxi, lehendik. Baiña holan esan zuen, ez ekidxela izengo zan Legutio edo Legutiano, azkenian gelditu zan, ba Legutiano udaletxean, oin ostera aldatu daubie, ta udaletxea da, dena da Legutiano, ta herria da Legutio...
- Legutio...
- Bai.
- Eta zuek Bilerle esaten dotsue, edo esaten dezue...
- Bai, guk Billerle esaten geban beti, e! Guretzako Villarreal ez zan, Billerle! “Nora zuz?”
- Klaro, klaro, Billerlera!
- “Billerlera, nondi zatoz? Billerleti”... Bai...
- Ondo!

33. San Blas jaiak aldatzeko erabakia

- **Erref**: LEG-063/013
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:18:23. **Bukatu**: 00:19:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:
Lehen, Legution, San Blas jaiak izaten ziren, San Blas baitzen patroia. Baina, azkenean, irailera aldatu zuten jaia. Erabaki hura hartu zuen alkateak eztularekin hil zen, jaiak aldatzeagatik omen...

Transkripzioa

- Eta, klaro, orduan izaten ziren jaiak, lehenau, nere, nere aurreti, e! Zan San Blasetan, ze orduen zan, patroia zan San Blas; baiña esaten aubien, zelan edurre ta eiten eban orduen, oin baiño askoz gehidxao, etorten zirela konbidatuak, ta ez aubien martxaten! Dana jan arte, inguru guztidxok jan arte! Ta aldatu aubien, alkateak aldatu eban kofradidxetara ezaten dana, setienbrien, Ama Birjiña ta sortzian, ta hurrongoko, hurrengoko asteburuan izaten dire, ta aurreraten dogu gaubie. Nire amak esaten... nire amamak esaten zuen, esaten aubiela hak... Alkatiek aldatu egin biher de gedxau, hil zala beti eztulagaz auela, beti eztulagaz ta hil zala eztularekin, horixe izengo da kontu bat, baiña bueno... aldatzeagaiti jaiak...

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-30

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com